



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Francisco Michelena Celayeta.  
Leire Bazterrika Loiarte.  
José Maria Michelena Erasun.  
Ezequiel Loiarte Santesteban.

2019ko otsailaren 28an, 18:30etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 bilkuretako aktei, zehazki 2018ko abenduak 17ko ohiko bilkurakoari eta 2019ko urtarrilak 24ko ez ohiko bilkurakoari. Inork ez du azalpenik egin eta Udalburuak bozkatzera deitu du.

Alde 5  
Abstentzioak 1

**Udalbatzak erabaki du: Aurreko bilkuretako aktak onartzea.**

## **2. ESKABIDEAK.**

Aurkeztutako eskaerak azaldu ondoren Udalbatzak bozkatzera deitu du.

Alde 5  
Abstentzioak 1

**Udalbatzak erabaki du:**

- 1.- Saharaztan 50 euroekin laguntzea.**
- 2.- Herri Urrats 50 euroekin laguntzea.**

## **3. MOZIOAK.**

Ez daude moziarik.

## **4. ALKATE JAUNAREN EBAZPENAK.**

Idazkariak aurreko bilkuratik hona izan diren ebazpen guztiak (2018/75 ebazpena eta 2019/1 ebazpenetik 2019/26 ebazpenera) irakurri ditu.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

**Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.**

## **5. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. Jarraian, agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: NUKF-aren komunikazioa, eremu urbanoak berreskuratzeko diru-laguntza, 1850 eurokoa (2018); Artikutzako parajea arautuko duen plegua, Udal interesatuek parte hartutako bileran adostua (Zirriborrea); Nafarroako Gobernura bidali den dokumentazio eskaerei erantzunak- Expdt: 3120193088 y 3120193081; Nafarroako Gobernura bidali diren oihan arobetxamendu luzapen eskaerak —José Ramón Ochandorena Goñi —; Nafarroako Gobernura bidali diren baso aprobetxamenduen baimen eskaerak —Jose Ramon Ochandorena Goñi, Flora Loyarte Jaunarena, Martín Legazcue Santesteban, Leire Mariezcurrena Perotxena, Sebastián Ochandorena Nervarte, M<sup>a</sup> Carmen Mariezcurrena Ezcurra, Higina María Santesteban Santesteban, Miguel Loyarte Mutuberria —; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduak —Juan Perochena Perochena, María Rosa Echeolonea Escudero, Manuel Vera Alemán, Juan Miguel Vera Jauregui, María Josefa Vera Jauregui, M<sup>a</sup> Carmen Bendoiro Ormaechea, Severiano Iparraguirre Mutuberria, Manuel Sanesteban Loyarte—; Nafarroako Gobernuak landatzeko eman dituen baimenak, — Pedro Jesús Santesteban Santesteban, Pedro José Hualde Indakoetxea, Juan Luis Loiarde Santesteban—; Chichillo mendiko Ariztegieta parajea aprobetxamenduaren ondorengo behapen akta; Errotako Museorako diru laguntza onarpenak (Kultura Zuzendari Nagusiko 347/2018, 346E/2018 eta 349E/2018 Ebazpenak); Nafar Gobernuko 1268/2018 Ebazpena Martinekoborda bidearen diru-laguntza onartzen duena; ANIMSA-ko akziodunak garen eina akzioak eskuratzeko proposamena; Ingurugiro eta Landa Antolamenduaren Zuzendari Nagusiaren 513/2018. Ebazpena, baso eremuen hobekuntzarako diru-laguntzak onartzen dituen; Kantauriar Konfederazio Hidrografikoaren jakinarazpena, A31/03729 espedientearen eskaera jasoa dutela komunikatzen duena; Komarka Atlantikotik Pino Insignisaren gaitza dela eta, emango diren diru laguntzak eskatu ahal izateko ofizioak; Espainiar Gobernuak emandako diru-laguntza, genero berdintasunaren inguruan Udalek planak, ekintzak eta proiektuak aurrera eramateko.

## **13. GALDE-ESKEAK.**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 19:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.